

**BORONDATE ONAREN PARADEROA EKIALDEKO
KULTURAN**

Aldizkari misionista katoliko batean irakurri dut nola “berri-
ro ere errealitateak” kolpatu egiten duen behar beharrezkoa
den idealismoa. Eta nik galdetzen dut, nire teoria buruan du-
dalarik, ea zein errealitate den hori. Ziur asko idazleak teori-
zutzen duena. Temati ere temati ezinezko egiten duena bo-
rondate on oro praktikara eramatea, edo ekartzea. Izan daite-
ke gerraren halako unibertsal bihurtze bat. Baina hori bada,
nik badut teorizatu ezin den fenomeno material bat, kasu ho-
netan, gerra unibertsal bihurtzea. Ezinezkotasun horrek posi-
ble egiten du beti fenomeno horren estudiatzea, eta azkenik,
interesatzen zaidana, fenomeno horren zergatiak eta arrazoiak
ezagutzea. Horretara, saihestu ere egin daiteke fenomeno ho-
rren gertatzea. Eta fenomeno hori gerra bada, orduan pentsa
dezala nire irakurleak zer nolako bide berriak ireki dakizkion
borondate onekoari. Nik neure artean erraten dudana, ez da
borondate onak zertan amaitu behar duen “kristo” bat eginik.
Ona da borondate hori, eta behar beharrezkoa, eta onbidea
ez da ezinezkoa, gaitza baden arren.

Aldizkari hori urte hasierakoa da eta katolikoon artean ur-
teko lehen eguna bakeari dedikatua da. Eta hor badu kato-
likoak zer pentsaturik, eta horretarako du egun oso bat. Be-

raz, inportantea da gaia katolikoon artean. Eta aita santuak berak ere hitz ederrak edukitzen ditu bakeaz.

Baina autoritate bat etortzen ahal zaigu kontrako hizpidea-rekin. Fraga Iribarne, adibidez (goian bego). Behin ospakizun militar batean zegoela idatzita laga zuen mugimendu bakeza-leek proposatzen digutena oso polita dela, baina errealitateak erakusten digula armatuak hobeto gaudela. Holako zerbait idatzi zuen.

Beste adibide bat ere badut memorian, nire osaba Ramiro Larrañaga (goian bego). Eta harek erraten zidan behin, gerra beti gertatu izan dela, eta ekidin ezina dela constatazio hori. Soraluzeko historia armeruaz liburu batzuk ere baditu publikatuak, oso herri inportantea izan baita gurea horri dago-kionez. Placencia de la armas. Museorik ere ez daukagu, eta errege etxe bat ere eduki izan dugu, zeharo abandonatua egon zena bota zuten arte.

Erran dut arestian gerra fenomeno material bezala estudia-garria dela, eta nik baieztatu ohi dut partikularitate esistentzia-la dela. Baina katoliko bezala nik onartzen dut badirela feno-meno espiritualak. Hor Jainkoa, dudarik gabe, Espiritu Santua da (hor eta denean, Jainko trinitario egiazkoa bakarra delako), Trinitate Guztiz Santuaren Hirugarren Persona da (Jesusek erakutsitako misterioa, eta nahasmena sortu didana). Eta badi-ra espiritu fidelak eta espiritu gaiztoak. Eta hor badago halako gerra bat, eta borroka bat. Eta, jakina denez, gure kosmos ma-terialean interferitzen dena, gure tormentu askoren iturria.

Beraz, niretzat behintzat, katolikook ez gaude armaden kontra. Agian azken egunean, Jesus datorrelarik, egongo dira-teke armada katolikoak adi Haren zain. Eta zain ez daudenak ere.

Katolikook mundu ikuskera propio horrekin pentsatzen dugu, eta horregatik bereziak gara. Jesusen baitan ikasten du-gu erremedioa, eta Jesusek erraten digu lagun hurkoaz ardu-

ratu behar dugula. Nik paso egingo banu politikatik ez nintzateke kristau bidean egongo, eta arduratu egiten naiz behin eta berriro. Ez dakit patologia ez ote den izango. Ni nago ezen nire betebeharra dela Jesusen jarraitzaile gisa.

Ni nago ezen pixka batean txarrera doala mundua, baina teorizazio asko daude, nireak tarteko, admititzen bazait, optimismorako bide posibleak irekitzen ahal dituztenak.

Politika zientzia praktikoa da, etorkizun dena indeterminatua da, ez dugu a priori ezagutzen eta soilik a priori ezagutzen duenari eduki behar zaio beldurra, baina guk ez dugu a priori ezagutzen, eta zientzia politikoa, begien bistan dago, egoten ahal dira diferentziak, eta teorizazio diferenteak eta egiazki horrelaxe da. Politizatua egotea, niretzat, hala ere, borondate onaren seinalea da, eta batez ere, niretzat, katoliko bezala, praktikantea, betebeharra.

Bestaldetik, borondate ona Montaignek ere bazuen (orain bertan amaitu dut irakurtzen Sexto Empirico filosofiaren “ez-bozos pirronicos” liburua eta dudak egiten ditut Montaigneren borondate onaz). Baina eszeptikoa zen, bururaino, eta eszeptizismo klasikoaren tropeak erabiliz katoliko baten alde egin zuen liburu batean, baina eszeptizismoaren tropo horiek beroriek erabiliz bere irakurleek fede katolikoa ere galtzen zuten. Eta Elizak debekatu egin zuen liburu haren publikatzea, eta banatzea. Uler bekit.

Nik ere intelektualki borondate onekoa naizela erran nezake, baina intelektualki ere okerreko bideetatik ibiltzen ahal naiz. Jesusek ere bazuen erran, Berari jarraitzeko norberaren burua ukatu behar zuela bakoitzak, eta horrek, orain, nire buruaren zuritzea dihardudala, berebiziko inportantzia du. Eta nik ere baditut neure filosofia naturalean halako ikutuak eszeptizismoarenak. Ez dut aurkitzen unibertsal bihurtzerik hor. Eta formalizatzean, nonbait han, halako unibertsal bihurtzeak gertatzen dira, baina ikerketa (eskepsis hori da) ez da hor

amaitzen (formalizatze oro faltsua balitz bezala, ez delako lanen amaiera). Lana, ondo pentsatuz gero, ikaragarria da, ez du amaierarik. Eta zientifismoaren puntu ahula hori da. Eta hortik ateratzeko jai egunak ere badaude, deskonektatzeko hor nonbait. Eta astean behin gutxienez, san Agustinek zioen moduan, mezatara joateko. Ea pixka bat argitzen garen. Eta filosofiarako joera dugunok uler dezagun kosmos fomalean soilik bizi gaitezkeela gizakiok. Eta hor kausa formala sartzen ahal dugu, eta sartzen dugu inolako zalantzarik gabe. Eta Platonen akademiari begiratzen diogu gainetik. Eta badirudi eszeptizismoak den-dena jan nahi duela. Eta kausa agenteari begiratzen diogu, hori Aristotelesena, eta hor lana ikasten dut nik motore, aurrerapena, kausa finala, gertatu dadintzat. Eta horrek ez luke amaierarik materialista huts izango bagina. Kausa finala infinituan dagoelako, infinitu potentzian nonbait han, baina infinitua aktoan ezinezkoa da materialista huts izango bagina. Hor Jesus dago argia ematen, argi garbia eta ez argi ustelik. Nik behintzat hori ateratzen dut.

Eta materialismo hutsean galduta ibilia banaiz ere, orain hori nire filosofia materiala da, osatu dut zauri hori.

Roman Garmendia